# Editorial

Zergak aldizkariaren 2012ko lehenengo zenbakiak ez dauka desberdintasunik aurre-aurreko zenbakiekin, ez egungo egoera ekonomikoaren gaineko iritziaren aldetik, ez eta zerga-egoeraren gaineko iritziarekin ere. Doikuntza- eta krisi-egoera larrian murgildurik jarraitzen dugu. Egoera horretan, berri txarrak edo gogorrak askoz ere gehiago dira berri onak baino.

Zerga eta finantza publikoen arloan, gure ogasunen eta gure inguruko ogasunen diru-bilketaren emaitzek ere, ezin dute egoera gainditu.

Zergak aldizkariaren 2012. urteko lehenengo zenbaki hau argitaratzen denean, egungo ekonomia eta zerga egoeraren aldetik ez da 2011. urteko bukaerarekin aldaketarik egon. Ahulezia ekonomikotik ateratzen laguntzen ez duten datuek jarraitzen dute eta, aldi berean, Euskadiko ekonomiak Espainiakoak baino emaitza hobeak ditu.

2012. ekitaldiaren aurrean, zergen arloko neurriak salbu (Zergak aldizkariaren aurreko zenbakian sakon aztertu ziren), hasierako lehenengo hiletan ez da izan garrantzizko arau-aldaketarik gure eremuan. Gure “Zergak gaur egun” atalean foru-aldundietako zerga-araudiaren zerbitzuek edo zerga-politikako zerbitzuek egindako laburpen bat azaltzen da. Bertan, lurralde historiko bakoitzean aurten eta ekainaren 30era bitartean onetsi eta argitaratu diren zerga-izaerako xedapen garrantzitsuenak deskribatu dira.

El primer número de Zergak del año 2012 no difiere en lo que al juicio sobre nuestra actualidad económica y tributaria se refiere, al de los números inmediatamente anteriores a éste. Seguimos inmersos en un duro clima de ajuste y crisis en el que las malas o duras noticias predominan sobre las positivas.

En el ámbito tributario y de las finanzas públicas los resultados recaudatorios de nuestras Haciendas y de las Haciendas de nuestro entorno tampoco consiguen remontar el vuelo.

Al tiempo de publicarse este primer número de Zergak del año 2012, en lo que respecta a la actualidad económica y tributaria, la situación no ha variado en comparación con el cierre de 2011. Persisten los datos que no avanzan en la salida de la atonía económica, a la vez que la economía vasca muestra mejores resultados que el conjunto de la economía española.

A salvo de las medidas tributarias de cara al ejercicio 2012, que fueron objeto de un amplio análisis en el número anterior de Zergak, durante los primeros meses de 2012 no se han producido modificaciones normativas significativas en nuestro ámbito. Nuestra sección de Actualidad fiscal cuenta con el resumen elaborado por los Servicios de Normativa Tributaria o Política Fiscal de las Diputaciones Forales, que describen las disposiciones más relevantes de carácter tributario aprobadas y publicadas en este año y hasta 30 de junio de 2012 en cada uno de los Territorios Históricos.

Euskadiren Bruselako Ordezkaritzak egindako txostenean azaldu da zehatz Europako zerga-arloak 2012ko lehenengo seihilekoan izan duen gaurkotasuna.

Modu esponentzialean hazi da Europako Erkidegoaren erabakiek duten garrantzia edo estatu kideen multzoaren eskariz hartutako erabakien garrantzia. Hazkunde hori honako hauek ekarri dute: alde batetik, Europar Batasunak eta bere erakundeek duten egungo eraketak berak; eta, beste alde batetik, krisi ekonomikoak eragiten dituen ondorioek, bai estatu kideen finantza-egoeran, bai eta, batez ere gaur egun, Europako hegoaldeko estatuen finantza-egoeran. Beraz, gero eta garrantzi handiagoa dute Europako Erkidegoaren eztabaidek, bai eta eztabaida horiek hartzen duten norabideak ere; betiere, zergen arloan izan ditzaketen eraginak aurreikuste aldera.

Gauzak horrela, Batzordeak gomendio bat egin du gure zerga-sistemaren egitura berro-rientatzeko aldera, Europako Batzordearen Aldaketen eta Gomendioen Plan Nazionalaren barruan, eta Espainiari dagokion aldetik. Gomendio horrek honako helburu hau dauka: “Zergak onbideratzeko ahaleginekin batera-garria den hazkundearen aldeko zerga-sistema ezarri. Zerga-sistema hori bereziki bideratuko da lanaren gaineko presio fiskala arintzera, bai eta kontsumoaren gaineko eta ingurumenarentzat kaltegarriak diren jardueren gaineko presio fiskala areagotzera ere. Bereziki, BEZaren bidez jasotako zerga gutxien proportzioa zuzendu eta BEZaren zerga-oinarria handitu. Zerga-sistemak dakarren alborapena gutxitu, zorpetzearen eta etxebizitzen jabetzaren aldera (alokairuen kalterako)”.

Europako Erkidegoaren egungo zerga-egoerak aurrezkien zerga-ordainketaren bilakaeraren analisia egiten jarraitzen du, bai eta gai garrantzitsu honetan aurrera pausuak ematen ere: Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri bateratu komunari buruzkoa (BICCIS). Eta Europako Parlamentuak adierazten du

La actualidad tributaria europea durante el primer semestre de 2012 se detalla en el informe elaborado por la Delegación de Euskadi en Bruselas.

La propia configuración actual de la Unión Europea y de sus instituciones, unido a los efectos que la crisis económica están provocando en la situación financiera de los Estados miembros, principlamente en la actualidad en los Estados del sur de Europa están produciendo un incremento exponencial de la importancia de las decisiones comunitarias o de las decisiones adoptadas a instancias del conjunto de Estados miembros. Tiene por lo tanto cada vez más relevancia prestar atención a los debates comunitarios y a la dirección que adoptan éstos, con el fin de prever sus repercusiones en nuestro ámbito tributario.

Así, dentro del Plan Nacional de Reformas y Recomendaciones de la Comisión Europea, y en lo que toca a España, la Comisión ha emitido una recomendación para lograr una reorientación de la estructura de nuestro sistema tributario, con el fin de “Introducir un sistema tributario compatible con los esfuerzos de saneamiento fiscal y más favorable al crecimiento, especialmente reorientando la presión fiscal desde el trabajo hacia el consumo y las actividades perjudiciales para el medio ambiente. En particular, subsanar la baja proporción de impuestos procedentes del IVA aumentando la base imponible de este impuesto. Disminuir el sesgo que provoca el sistema tributario en favor del endeudamiento y el acceso a la propiedad de la vivienda (en detrimento del alquiler)”.

La actualidad tributaria comunitaria continúa con el análisis de la evolución de la fiscalidad del ahorro, y los avances en una materia relevante que afecta a nuestras competencias normativas: la propuesta de Directiva del Consejo relativa a una base imponible consolidada común del impuesto sobre sociedades (BICCIS), exponiendo la favorable

Batzordearen ekimen horren aldekoa dela. Horrez gain, beste arlo esanguratsu bat da finantza-transakzioen gaineko zergari buruzko zuzentarau-proposamenaren egoera, nahiz eta ekimen horretan ia ezinezkoa izango den Estatu kideen ahobatezko jarrera, Erresuma Batuak duen jarrera dela eta. Hala ere, Euskadiren Bruselako Ordezkaritzak egindako txostenean batzen dira Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen, zein Europako Parlamentuaren hainbat batzorderen ikuspuntuak; eta, horrez gain, aurtengo lehenengo hiletan Batzordeak izandako jardueren berri ere ematen da.

Bukatzeko, txostenak kooperazio, iruzurraren kontrako borroka eta Zerga Berezien arloko ekimenak, bai eta interesgarriak diren Europako Batzordearen azken argitalpenak jasotzen ditu.

Zergak aldizkariaren lehenengo kolaborazioa Bizkaiko Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Politika Zerbitzuaren buru den Gemma Martínez Bárbarak egin du. Kolaborazio hori, HARMONIZAZIO FISKALARI ETA EUSKADIKO LURRALDE HISTORIKOEN ARAUTZE-AHALMENARI buruzko azterlana osatzen duten hiru zatien artean lehenengoa da. Azterlan sakona eta zehatza da: ikuspegi teoriko batetik abiatzen da eta kontuan hartzen ditu ukitzen duen jurisprudentzia-doktrinak eta konstituzio-doktrinak; era berean, aztertu egiten du Bizkaiko Lurralde Historikoaren arautze-ahalmena gauzatzean harmonizazio fiskalaren printzipioak eragiten dituen ondorioak zein diren.

Aldizkari honen hurrengo zenbakietan azterlanaren II. eta III. zatiak argitaratuko dira. Horietan Itun Ekonomikoaren harmonizazio printzipioa garatuko da, bai Estatuaren eta Euskadiren arteko harremanen oinarrizko printzipioa den aldetik, bai eta lurralde historikoen zerga-sistemen arteko harremanetarako printzipioa den aldetik.

posición del Parlamento Europeo frente a esta iniciativa de la Comisión. Otro aspecto importante es la situación de la propuesta de Directiva del Impuesto sobre las Transacciones Financieras, aunque en esta iniciativa será prácticamente imposible lograr una posición unánime por parte de los Estados miembros por la posición del Reino Unido. No obstante, se recogen en el informe elaborado por la Delegación de Euskadi en Bruselas el punto de vista del Comité Económico y Social Europeo, de distintas comisiones del parlamento Europeo y se da cuenta de las actividades del Consejo durante estos primeros meses del año.

El informe se cierra con las iniciativas en materia de Impuestos Especiales, cooperación y lucha contra el fraude y una reseña de las últimas publicaciones de interés de la Comisión Europea.

La primera de las colaboraciones de Zergak ha sido elaborada por Gemma Martínez Bárbara, Jefa del servicio de Política Fiscal del Departamento de Hacienda y Finanzas de Bizkaia. Esta colaboración constituye la primera parte de tres que forman el estudio dedicado a la ARMONIZACIÓN FISCAL Y CAPACIDAD NORMATIVA DE LOS TERRITORIOS HISTÓRICOS DEL PAÍS VASCO. Este profundo y detallado análisis parte de una perspectiva teórica, con la doctrina jurisprudencial y constitucional que le afecta, para analizar después los efectos que el principio de armonización fiscal produce en el ejercicio de su capacidad normativa para el Territorio Histórico de Bizkaia.

En las partes (II) y (III), que se publicarán en los números siguientes de esta revista, se desarrollarán los aspectos relativos al principio de armonización del Concierto Económico como principio inspirador de las relaciones tributarias entre el Estado y el País Vasco, así como los que lo configuran como principio de relación entre los sistemas tributarios de los Territorios Históricos.

Zenbaki honetan argitaratutako artikulua Euskadiko lurralde historikoek zerga arloan duten eskumena egiaztatzen hasten da. Eskumen hori Konstituzioak eta EHAEk eguneratutako eskubide historikoetatik dator, eta Euskadiko lurralde historikoei ematen die zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena.

Ondoren, harmonizazio fiskalaren kontzeptua zehazten da, duen irismena eta edukia nolakoa den azalduz: "aldakorra da harmonizazio-prozesuaren intentsitatearen arabera, bai eta bere aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuen arabera".

Gauzak horrela, egileak harmonizazio arloan hiru eremu bereizten ditu: Espainia Europar Batasunean integratzeak dakarrena (Erkidegoko antolamendu juridikoa), Itun Ekonomikoak dakarrena (Estatuko ordenamendu juridikoa) eta lurralde historikoak EAEn integratzeak dakarrena (autonomia-erkidegoko ordenamendu juridikoa). Hiru eremu horiek sakon aztertzen dira azterlan osoan zehar.

Azterlanaren lehendabiziko zatia lehenengo eremuaren analisian bukatzen da, Erkidegoarenean. Izan ere, hainbat motatako mekanismoen bidez gero eta presentzia nabarmenagoa du eremu horrek. Halaber, azterlanak bereizi egiten ditu harmonizazio fiskal positiboa, negatiboa eta estatuko laguntzen Erkidegoko politika bera.

Zergak aldizkariaren 43. zenbakiaren bigarren kolaborazioa Miren Saioa Gil Basañezek sinatzen du, zuzenbideko lizentziatua eta Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioko Zuzendaritzako teknikaria.

Kolaborazioak honako izenburua hau du: "Tributación del juego en Euskadi: bingo-jokoa", eta ia erabat euskaraz eginda dago, nahiz eta sarrera gaztelaniaz egon. Sarrera horretan, artikuluan zehar garatzen diren ideiak azaltzen dira, laburpen moduan.

El artículo publicado en el presente número parte de la constatación de la competencia de los Territorios Históricos del País Vasco en materia tributaria, proveniente de la actualización de los derechos históricos llevada a cabo por la Constitución y el EAPV, que residencia la capacidad normativa para mantener, establecer y regular sus regímenes tributarios en los Territorios Históricos del País Vasco.

Posteriormente delimita el concepto de armonización fiscal, cuyo contenido y alcance "resulta ser variable en función de la intensidad del proceso armonizador y de los diferentes planos y objetivos que se pretendan lograr mediante su aplicación".

Así, existen para la autora tres ámbitos diferenciados en materia de armonización: el que deriva de la integración de España en la Unión Europea (ordenamiento jurídico comunitario), el que deriva del Concierto Económico (ordenamiento jurídico estatal) y el que deriva de la integración de los Territorios Históricos en la CAPV (ordenamiento jurídico autonómico), que serán analizados en profundidad en el conjunto del estudio.

El análisis del primero de los ámbitos, el comunitario, ámbito cuya presencia se hace cada vez más palpable a través de distintos mecanismos, cierra esta primera parte del estudio, distinguiendo entre la armonización fiscal positiva, la negativa y la propia política comunitaria de ayudas de Estado.

La segunda de las colaboraciones del número 43 de Zergak está firmada por Miren Saioa Gil Basañez, Licenciada en Derecho, y técnica de la Dirección de Administración Tributaria del Gobierno Vasco.

La colaboración lleva por título "Tributación del juego en Euskadi: bingo-jokoa", y está realizado en su mayor parte en euskera, si bien contiene una introducción en castellano donde, a modo de resumen, se recogen las ideas que a lo largo del artículo se desarrollan.

Euskadiko joko-jarduerak aztertzen hasten da Lana, eta, ondoren, bingo-jokoaren egoeraren analisia egiten du. Bingo-sektorea izaera estrukturaleko krisian murgildurik dago; izan ere, bisiten kopuruak beherakada handia izan du, bingo-areto batzuek ateak itxi dituzte eta lanpostuak ere galdu dira. Egoera horrek jokoaren gaineko zergen bilketan eragina du, eta diru-bilketa horren bilakaera ere artikuluan aztertzen da.

Horrez gain, kolaborazio honetan bingo-jokoaren gaineko zerga-ordainketaren bilakaera aztertzen da, autonomia-erkidegoak konparatuz eta kontuan harturik bingo-joko tradizionala, elektronikoa eta *on-line* modalitateak. Konparazioa bingo-jokoa kargatzen duten figura tributarioen zerga-oinarriak homogeneizatuz egiten da. Azterlan konparatu honi esker jakin daiteke ea sektore honek Euskadin jasaten duen presio fiskala Estatuko batez bestekoaren gainetik edo azpitik dagoen. Azken urteetako joera, bingo tradizionalaren zergapetzea gutxitzea dela nabarmentzen da, bai autonomia-erkidego gehienetan, bai beste herrialdeetan ere.

Azterlan konparatu bera egiten da, modu orokorrago batean egin ere, joko-makinen eta kasinoen zerga-ordainketaren gainean. Azkenik, lanak aipamen berezia egiten dio EAEn bingo-jokoa zergapetzen duen araudiari, bai eta 13/2011 Legeari (maiatzaren 27koa, Joko-jardueren gaineko Zerga arautzen duena). Lege horrek joko-jardueren gaineko zerga berria ezartzen du, estatu-mailan.

Azken kolaborazioaren izenburua da “La tributación de las adquisiciones inter vivos en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones: territorio común versus territorios forales del País Vasco”. Kolaborazio horren egilea Lourdes Serna Blanco da, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen baitako Unibertsitate Eskolako irakasle titularra (Ekonomia Aplikatua II Departamentua).

El trabajo comienza analizando cuál es la situación de la actividad del juego en Euskadi y, acto seguido, pasa a analizar la situación del juego del bingo. Se trata de un sector inmerso en una crisis de carácter estructural con grandes caídas en el número de visitas, cierre de salas y pérdida de empleos. Esta situación tiene reflejo en la recaudación por la imposición sobre el juego, cuya evolución también se analiza en el artículo.

Asimismo, en esta colaboración se realiza un estudio comparado de la evolución de la tributación del bingo en sus modalidades de tradicional, electrónico y *on-line*, en las distintas Comunidades Autónomas. La comparativa se lleva a cabo homogeneizando las bases imponibles de las diferentes figuras tributarias que gravan el juego del bingo. Gracias a ese estudio comparado es posible determinar si la presión fiscal que soporta este sector en Euskadi está por encima o por debajo de la media estatal. Se constata que la tendencia de los últimos años, tanto en la mayoría de comunidades autónomas como en otros países, es disminuir la tributación del bingo tradicional.

El mismo estudio comparado se realiza, aunque de un modo más genérico, respecto de la tributación de las máquinas de juego y de los casinos. Por último, el trabajo hace especial mención a la normativa que regula la imposición sobre el juego del bingo en la CAE, y a la Ley 13/2011, de 27 de mayo, de regulación del juego, que establece un nuevo impuesto sobre las operaciones de juego en el ámbito estatal.

La última de las colaboraciones tiene por título “La tributación de las adquisiciones inter vivos en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones: territorio común versus territorios forales del País Vasco”. La autora de esta colaboración es Lourdes Serna Blanco, Profesora Titular de Escuela Universitaria del Departamento de Economía Aplicada II. Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la Universidad del País Vasco.

Egileak konparazio zehatza egiten du autonomia-erkidego bakoitzean indarrean dagoen zerga-araudien artean; izan ere, gai horretan, autonomia-erkidegoek kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko eskumenez gain, arautzeko ahalmena daukate. Hala ere, bai Euskadin, bai Nafarroako Foru Erkidegoan, zerga hau autonomia-araubideko hitzartutako zerga da.

Horretarako, ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein negozio juridikoren bidez, dohainik eta inter vivos, eskuratzearen gaineko zergapetzea deskribatzen du autonomia-erkidego bakoitzean, bai eta lurralde komunean ere. Zergapetze hori gure lurralde historikoetan indarrean dagoen zergapetzearekin alderatzen du. Azkenik, laburpen-koadro batzuk txertatzen dira, zergapetze horren analisi osoa egiten laguntzeko.

“Aipamenak” atalari dagokionez, Zerga Koordinaziorako Organoaren, eta Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen txostena izan duten kontsultak aipatzen dira bertan.

Gainera, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpen batzuk aipatzen dira eta, azkenik, Juan Carlos García Amezagak egindako txostena txertatzen da. Txosten hori maiatzaren itxieran Euskadiko 2012ko diru-bilketaren bilakaerari buruzkoa da.

Aldizkariaren amaieran hiru lurralde historikoetako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Estatuko aldizkari ofizialetan argitaratutako zerga-araudiaren laburpenerako helbidea aipatzen da, eta arau bakoitzaren testu osoa ikusi ahal izateko aukera eskaintzen da.

La autora realiza una exhaustiva comparación entre la normativa tributaria vigente en cada una de las Comunidades Autónomas, dado que éstas ostentan capacidad normativa en esta materia, además de las competencias de gestión, liquidación, recaudación e inspección, mientras que en el País Vasco, como en la Comunidad Foral de Navarra, este tributo es un tributo concertado de normativa autónoma.

Para ello, describe la tributación de las adquisiciones de bienes y derechos por donación o cualquier otro negocio jurídico gratuito inter vivos en territorio común y en cada una de las Comunidades Autónomas para compararla con la tributación vigente en nuestros Territorios Históricos, incorporando finalmente una serie de cuadros resumen que compendian y facilitan un análisis global de esta tributación.

La sección de Referencias se abre con las consultas que han sido objeto de informe en el Órgano de Coordinación Tributaria y en la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa.

Además, se incluye una serie de resoluciones de la Junta Arbitral del Concierto Económico, y por último, se incluye un informe elaborado por Juan Carlos García Amezaga, referido a la evolución de la recaudación 2012 en el País Vasco al cierre del mes de mayo.

La revista cierra con el acceso a la dirección donde se encuentra el habitual compendio de la normativa tributaria publicada en los boletines oficiales de los tres Territorios Históricos, del País Vasco, de la Comunidad Foral de Navarra y del Estado, con la posibilidad de acceder al texto completo de cada una de estas normas.